



Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak alde biko "negoiazio mahai teknikoa" sortzea adostu dute, tren lurperatzerakoan libre geratu den orubean "proiektu adostu bat" lortzeko. "Konfiantza giroa sortzeko" asmoz, albo batera utziko dituzte indarrean dauden auzi judizialak. Udalak prozesu herritarra hasi gura du urtea amaitu baino lehenago • 4

Pauso bat aurrera trenbide zaharraren proiektuan



Taularatzeko prest

Agenda • Izaro Andres musikariak kontzertua eskainiko du zapatuan, Landako Gunean. • 16

Gutierrez munduko txapeldun eta Kortazar hirugarren uretako motoetan

Kirola • Uretako motoen munduko espezialistarik onenak batu dituen txapelketan, eskualdeko bi nabarmendu dira: Andoni Gutierrez abadiñarra eta Lander Kortazar durangarra. Bere gogortasunagaitik, uretako Dakar-a

deitzen diote Mallorcako probari, eta aurtengoa ez da salbuespena izan. Itsaso zakarrari etekina ateratzen asmatu dute eskualdeko kirolari biek, eta eurenak baino moto hobee-kin aritu direnak menderatu dituzte. • 21



"Loteria saltzeagaitiko komisiok eguneratzea eskatzen dugu"

Abadiño • Mikel Petite 'Loteris en lucha' mugimenduko kidea da. Kexu da komisiok izoztuta dituztelako 17 urtean. • 2

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net





Mikel Petite Guenaga

Loteria saltzailea

ABADIÑO | 1978

egitera. Baduzue beste mobilizazio-rik egiteko asmorik?

Bai. Gabonetako loteriaren zozketa, abenduaren 22koa, oihartzun handiko zozketa izaten da. Aurtun ere hedabide asko egongo da han. Telebista kanal pilo bat. Eta zerbait antolatuko dugu. Beharbada edukiera kontuengaitik ezingo gara denok barrura sartu, baina baliteke Madrilgo Errege Antzokia inguratzea. Zerbait egingo dugu. Behintzat, han egon.

Izan duzue gobernuaren erantzunik orain arte?

Ez. Azken urte hauetan asko izan dira Apustuen eta Loterien Era-kundeagaz batu diren elkarteak. Baina jaso duguna ezezkoa izan da. Irailaren 22an idatzi bat erregistratu genuen, baina, oraingoz, ez dugu erantzunik jaso.

Zer diotsue herritarrek? Behar den beste ezagutzen ote dugu loterien atzean dagoena?

Gai ezezaguna izan da orain arte, baina iruditzen zait apurka-apurka ezagunagoa egiten dabilela. Irailaren 22ko deialdia zela-eta, kartel piloa ipini genuen dendan. Ordu tarte batzuetan loteria saltzeari utzi genion. Oihartzuna lortu gura izan dugu. Orokorrean, herritarrak loteria zaleak dira. Esango nuke sortzen den nola-baiteko ilusio hori gustatu egiten zaigula. Gainera, esaten da krisi sasoiari gehiago parte hartzen dela loterian. Administrazio honetan ere eman izan ditugu sari potoloak. Adibidez, Erregetako Umeen zozketaren bigarren saria banatu dugu orain gutxi. Horrek ilusioa eragiten digu guri ere.

“Gabonetako loteriaren dezimoak 20 euro balio dituen arren, guk 80 zentimo jasotzen ditugu”

Espainiako estatuko loteria saltzaileek 'Loterios en lucha' mugimendua sortu dute. Kexu dira, salduriko txartel bakoitzeko jasotzen dituzten komisioak ez direlako azken 17 urteetan aldatu. Tarte horretan bizimodua garestitu dela eta egoera "larria" bizi dutela diote

LOTERIA • EKAITZ HERRERA

Espainiako estatu osoan, 1.000 loteria saltzaile baino gehiago antolatuta dira 'Loterios en lucha' (Loteria saltzaileak borrokan) mugimendua. Mikel Petite loteria saltzaile abadiñarra bertan sartuta dabil. Kolektiboaren aldarrikapenak eskari bakar batera mugatu daitezke. Honako honetara: loteria saltzeagaitik jasotzen dituzten komisioak eguneratu daitezke gura dute, 17 urtean bere horretan mantendu dira eta.

Zein arrazoik bultzatu zaitu 'Loterios en lucha' mugimenduan parte hartzea?

Loterios en lucha mugimendua Sevilla hirian sortu zen. Bere eskaera nagusia da loteria saltzaileok salmenta bakoitzagaitik jasotzen dugun komisio kopurua handitzea. Komisio horiek 2004tik daude izoztuta. 17 urte daramatzagu egoera honetan. Eta SELAeri, Espainiako estatuko apustuen eta loterien erakundeari, eskatzen dioguna da, hain zuzen ere, loteria saltzaileok kontuan hartzea, eta komisio horiek eguneratzea.

Zer nolako pisua dute komisio horiek zuen fakturazioan?

Adibide modura, Gabonetako loteria ipiniko dizut. Dezimo bakoitzak 20 euro balio ditu, baina guk

80 zentimo jasotzen ditugu hortik. Hau da, dezimoak balio duenaren %4. Beste adibide bat primitiba izan daiteke. Bertan euro bat jokatzen baduzu, guk bost zentimo poltsikoratzen ditugu. Hau da, %5. Beraz, dioguna da komisio horiek eguneratu egin behar dituztela. Izan ere, 17 urte hauetan igo egin dira autonomoen kuota, igo egin da argindarraren prezioa, eta garestitu egin da bizimodua bera. Horregaitik eguneratu behar dira komisioak. Egoera larria da. Honen ez du heldulekurik.

17 urte hauetan igo egin dira autonomoen kuota, argiaren prezioa, eta bizimodua bera. Horregaitik eguneratu behar dira komisioak

Beraz, salduriko txartelaren ehuneko txiki bat baino ez duzue poltsikoratzen. Nora bideratzen da gainerako dirua?

Gainerako ia dena Espainiako estatuak bereganatzen du. %26 bat estatuko altxortegira doa. Beste %70 loteria sarietara. Baina kon-

tuan hartu behar da sarien %20 ere estatua bueltatzen dela. Azkenenean, salmentaren mozkinik handiena estatuak bereganatzen du. Estatuak urtean 9.000 milioi euroko diru sarrerak ditu loteriei eskerrak, batez beste.

Joan den irailaren 22an, Espainiako estatuko hainbat loteria saltzaile Madrilera joan zineten manifestazioa

17 urte hauetan igo egin dira autonomoen kuota, argiaren prezioa, eta bizimodua bera. Horregaitik eguneratu behar dira komisioak



Mikel Petite Matienako dendan.

"Ezin dugu joan den mendeko komisiok kobratzen segitu, gastuak igo eta erosketa ahalmena heren bat gutxitu zaigunean"

Txema Montes Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 'Loterios en lucha' mugimenduko koordinatzailea da. Bizi duten egoera "jasangaitza" da bere esanetan

LOTERIA • EKAITZ HERRERA

"Egoera hau jasangaitza da. Gaur egun ez da bideragarria loteria administrazio bat kudeatzea. Zure negozioa mistoa bada, hau da, loteriaz gainera bestelako gauza batzuk saltzen badituzu, bada, eramangarriagoa izango da egoera. Baina loteria bakarrik salduta aurrera egitea oso gatxa da", dio Txema Montesek. Montes *Loterios en lucha* kolektiboko koordinatzailea da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horrez gainera, loteria saltzen du Astrabuduan (Erandio). Argi dio ez dabiltzala "negarrez". "Ezin dugu joan den mendeko komisiok kobratzen segitu, gastuak igo direnean eta erosteko ahalmena heren bat gutxitu zaigunean", zehaztu du Montesek. "Ez zaigu mobilizazioak egitea besterik geratzen. SELAE erakundearen partetik, Estatuko Apustuen eta Loterien Erakundearen partetik, berba politikak baino ez ditugu jasotzen. Baina auzi hau zuzendu behar dute. Gure produktuen prezioak tasatuak dira. Estatuak markatzen



Txema Montes mobilizazio batean.

ditu. Beraz, giro trumoitua dugu une hauetan".

Dezimoen banakatzea

Loteria saltzaileentzat Gabonetakoa da urteko sasoirik etekingarriena. Gabonetako fakturazioaren "%40" sasoi horretako zozketa txar-

telak salduta poltsikoratzen dute. Umeen zozketaren eta *El Gordo* lez ezaguna denaren txartelak salduta. Dena dela, Txema Montesek modu kritikoa begiratzen die txartel horien atzean dauden komisiok. Bere esanetan, loteria saltzaileak txartelaren balioaren %4 baino

ez du eskuratzen. "Beste %26 bat Espainiako estatuko altxortegira bideratzen da. Eta falta den %70a zozketako sariak finantzatzeko erabiltzen da", dio. Baina azken puntu honetan ere bada gehiago. Izan ere, estatuak sari horien zati bat atxiki egiten du. Beraz, balio

horiek aldatzean eta saltzaileentzako komisiok "eguneratzean" kontzentratzen dira *Loterios en lucha* kolektiboaren aldarriak.

Bestalde, Internet agertzeak apustuen mundua goitik behera aldatu duela dio Montesek. Eta Apustuen eta Loterien Erakundeari eskatu dio joko berriak diseinatzea, "sorkuntza lan hori ere erakunde horren betebeharra" delakoan.

Gerran sorturiko zozketa

Espainiako estatuko loteria, gaur egun ezagutzen dugun eran, XIX. mendean hasi zen funtzionatzen. Hain zuzen ere, espainiarren eta frantsesen arteko gerra betean, gerra napoleonikoetan. Orduan Espainiako Ogasun Publikoa diruz larri zebilenez, agintariek pentsatu zuten herritarrak gehiegi hasezko ez zituen zerga moduko bat diseinatzea. Testuinguru hartan jaio zen gaur egun ezagutzen dugun loteria modernoa, nahiz eta hamarkada batzuk lehenago ere egon ziren antzera bateko zozketak.

HEMENDIK

ELORRIORA

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, behea 48215, lurreta
construcciones@zarateyelexpe.com



Aritz Bravo, Ima Garrastatxu eta Jorge Barela ETSren egoitzan.

Alde biko "negoziario mahai tekniko", trenbidearen orubeko proiektua adosteko

Durangoko Udalak eta Garraio Sailak mahai bat sortu dute trenbide zaharraren orubean "proiektu adostu bat" sortzeko. Albo batera utzi dituzte indarrean dauden auzi judizialak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak alde biko "negoziario-mahai tekniko bat sortzea" adostu dute, tren lurperatzerakoan libre geratutako orubean "proiektu adostu bat" sortzeko. Hori dela-eta, alde biek albo batera utziko dituzte indarrean dauden auzi judizialak, "konfiantza giroa sortzeko".

Durangoko Udalak honako hau itxaroten du Jaurlaritzaren partetik: "18 solairuko bost dorreak ez eraikitzea", eta orubean "berdeguneak lehenestea". Bestalde, alde

biek adostasuna lortzen badute eta adostutako hori durangarrek onartzen badute, urbanizazio lanak "lehenbailehen" hasteko borondatea agertu du udalak. Proiektuan inplikaturiko alde biek Bilbon egin dute bilera, Eusko Trenbide Sarearen egoitzan. Durangoko

"Udalak 18 solairuko bost dorreak ez eraikitzea" eta "berdeguneak lehenestea" itxaroten du

Ima Garrastatxu alkateak, Aritz Bravo zinegotziak eta Jorge Varela zinegotziak, eta Pedro Marco Garraio sailburuordeak, Loly de Juan Garraio azpiegituren zuzendariak eta Ernesto Martínez de Cabredo ETSko zuzendariak parte hartu dute bertan.

Martxoaren 14ko galdeketa

PERI 1 Trenbidea proiektuaren herri galdeketa 7.077 durangarrek eman zuten botoa. Horietatik 6.680k proiektua gelditu eta parte hartze prozesu bat hastearren alde egin zuten.

3.500 'Gastrobono' kaleratu dituzte Durangoko ostalaritza negozioei bultzada emateko

10 euroko bonuagaz 20 euroko kontsumizioa egin ahalko da. Bonuok durangarrek zein kanpokoek baliatu ditzakete



Durangoko ostalariak eta udal arduradunak ekimenaren aurkezpena.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Dagoeneko martxan da Durangoko ostalaritzari suspertzen laguntzeko *Gastrobonoak* izeneko egitasmoa. Udalak 3.500 bonu kaleratu ditu, 35.000 euroko inbertsioa eginda. Deskontu bonuak dira: bonu bakoitza 10 euroan eskuratu daiteke eta 20 euroko balioa du. Egitasmoa 18 urtetik gorakoei bideratuta dago eta aurkezturiko NAN bakoitzeko bonu bi eskuratu daitezke gehienez.

Bonu bakoitza erabilera bakarreko barra-kode bati lotuta egongo da. Hau da, bonua baliatzen duen kontsumitzaileak atxikitako establezimendu ba-

tera jotzen badu kontsumizio bat egitera, bada, bonu osoa, hasi eta amaitu, establezimendu horretan agortuko du. Kontsumizio bakoitzean bonu bi erabili daitezke gehienez, zenbatekoa edozein dela ere. Ekimen honen berezitasun bat da ez dagoela durangarrei bakarrik mugatuta: Durangotik kanpokoak direnek ere eskuratu ditzakete txartelak.

Bonuak bonoa.durango.eus web orrian, Herritarren Arreta Zerbitzuan edo Turismo Bulegoan daude eskuragarri. Kontsumizioak azaroa amaitu baino lehenago egin beharko dira.

Jesus Jauregiren 'Umbral' eskultura Landako Gunetik Durangoko sarrerara lekualdatu dute

Gernikako Arbola biribilgunearen ondoan eraikitzen dabiltzan etxebizitzaren ingurura eraman dute

DURANGO • JONE GUENETXEA

Jesus Jauregi artistak Durangoko Landako Gunerako *Umbral* eskultura diseinatu zuenetik asko aldatu da ingurua. Trena lurperatuta dago, pasabideak zabaldua. Eta testuingurua aldatu egin denez,

Durangoko Udalak eskulturaren egileari artelana lekuz aldatzeko proposamena egin dio. Udalak azaldu duenez, Jauregik bat egin du proposamenaz.

Eskultura Durangoko sarrerara eraman dute, Gernikako Arbola

biribilgunearen ondora, han inguruan eraikitzen dabiltzan etxebizitzaren aldamenera. Joan zen astean hasi ziren eskultura lekualdatzen eta martitzen iluntzean garabi handi batez garraiatu zuten. Orain, konpondu eta garbitu egingo dute.



Eskultura garabi handi batez lekualdatu zuten.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko urriaren 29a
19. urtea - 868. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durango Rugby Taldeak kamisetak eta pultserak aterako ditu Movember ekimenaren barruan

Kamisetak Rugby Tabernan eskuratu ahalko dira, besteak beste. Pultserak, ostera, Dendak Bai elkartearen bitartez. Bestalde, azaroaren 6an eta 20an postu bat ipiniko dute Durangoko Andra Marian, material hori gutzia saltzeko



Antxon iriondo eta Iker Mendieta DRTko kideak kanpaina berriaren aurkezpenean.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Urtero sasoi honetan ohikoa den moduan, Durango Rugby Taldeak Movember mugimenduagaz bat egingo du aurten ere. Azaroan bibotea utzita, gizonengan prostatako eta barrabiletako minbiziak prebenitzeko kontzientziazioan eragitea du helburu ekimenak, baina horren harira beste hainbat ekimen ere antolatzen dute dirua batzeko.

Iaz, Movember mugimenduko biboteagaz marrazturiko maskara edo musukoak atera zituzten. Aurten, ostera, ez dira bakarrik biboteak ikusiko kalean. Kamisetak eta pultserak izango dituzte lagun, biak lehenengoz. Azaroan zehar erosi ahalko dira. Pultserak hanhemenka zabaltzeko, Dendak Bai

elkartearen laguntza izango dute eta hainbat komertziotan egongo dira eskuragarri. Kamisetak Rugby Tabernan edo DRTko arduradunen bitartez lortu ahal izango dira. Horrez gainera, azaroaren 6an eta 20an postu bat ipiniko dute Andra Mariko elizpean, materiala saltzeko.

Mov Eguna

Ekimenaren erremate modura, *Mov Day* eguna antolatuko dute. Azaroaren 25ean egingo dute, Rugby Tabernan. Antolatzaileek aurreratu dutenez, zozketak, pintxo-potea eta ekintza gehiago egingo dituzte egun horretan. Bestalde, tabernetan itsulapikoak ipiniko dituzte ekarpenen bat egin gura duenarentzat.

Ekimena ahalik eta gehien zabaldu gura dutela da aurten beste nobedadeetariko bat. Tokian tokiko errugbi taldeekin elkarlanean arituko dira kamisetak eta pultserak Bilbon, Gasteizen, Hendaian eta beste herri batzuetan ere saldu daitezten.

Berbalagun berria euskararen erabilera bultzatzeko asmoz dator

Mankomunitateko, udaletako eta Berbalagun programako kideek egitasmoaren 21. edizioa aurkeztu dute asteon

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Euskararen ezagutza hazi egin den arren erabilera ez da neurri berean indartu. Hor ipini gura dute, hain zuzen ere, Berbalaguneko edizio honetako "fokua". Mireia Elkoroiribe Mankomunitateko presidentearen esanetan, ezagutza eta erabilera indartzeko "momentua" da oraingoa.

Bestalde, "euskaldunen arteko sareari eta elkar ezagutzari" bultzada emateko sasoi dela iritzi dio Irati Anakabek, AEKren Berbalagun programako arduradunak. Alde horretatik, ariguneez eskaintzen duten "konfiantza espazioa" goraiatu du, eta gaineratu du denboraldi honetarako ere gertu dituztela mendi irteerak, bisita gidatuak zein Hiketalagun programak.

Programan izena emateko epea urrian zabaldu zen. Dagoeneko 17 izan dira Durangaldean sortu diren taldeak. Guztira, 100 herritarrek eman dute izena. Bestalde, euskara "gozamenagaz eta hartu-eman sareekin" batu behar dela azaldu dute aurkezpenean.

Euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko momendua da, Elkoroiriberen berbetan

Programan izena eman gura dutenek 639 400 786 telefono zenbakira edo durangaldea@aek.eus helbide elektronikora idatzi dezakete.

Berbaro elkarteak Hirukoa lehiaketaren hirugarren edizioari ekin dio

Lehenengo galdetegia kalean da. Talde parte hartzaileek Berbaroren web orrira edo sare sozialetara jo behar dute



Dagoeneko parte hartu daiteke lehiaketan.

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBIZKAR

Berbaro euskara elkarteak Hirukoa lehiaketa antolatu du hirugarren urtez. Parte hartzaileek galdetegi bat bete beharko dute Interneten datozen asteetan, astero. Galderak mota askotarikoak izango dira: Durangoko historiari loturikoak, Durango-ko eguneroko kontuei buruzkoak, edo kultura, kirola, pertsona famatuen aurpegiak, hieroglifikoak ardatz dituztenak.

Parte hartzea oso erraza da: hiru laguneko taldea osatu, eta datozen hiru asteetan kaleratuko dituzten galdetegiak bete eta bidali behar dira domeka gaua baino lehenago. Galdetegi horiek astelehenero eskuragarri ipiniko dituzte Berbaroren webgunean eta Berbaroren sare sozialetan. Lehenengo galdetegi kalean dago jada.

Punturik gehien lortzen duen hirukoteak Errigorako otzara eder bat jasoko du. Iazko edizioan 23 hirukotek parte hartu zuten.

KREOS

Egunezko gatazkak sormenaren bitartez kudeatzeko tailerra

Azaroak 6
11:00-13:00

Aldez aurretiko izen ematea
TEL. 94 681 27 26 WhatsApp: 688 86 37 36
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus
Bidebarrieta kalea 4 - 48215 Iurreta (Bizkaia)
16 urtetik aurrera

Arrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

MAKALLAU saltsan

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329



Luciano Martínez kultura zinegotzia eta Aritz Labrador Musika Bandako zuzendaria.

Zornotzako Bandak sei "bidaia" proposatu ditu denboraldi berrirako

Zapatuan hasiko da denboraldia, 20:00etan, 'Haurtzarora bidaia' kontzertu bereziagaz

ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

'Bandarekin bidaian' izenburupean, zapatuan hasiko duen hirugarren denboraldia aurkeztu du, asteon, Zornotzako Musika Bandak. "Jaio eta apurka-apurka hazten joan eta gero, Zornotzako Musika Banda martxan dagoela aldarrikatzea da denboraldi honetako helburua. Kontzertu bakoitzak bidaia ezberdina sentiaraziko die entzuleei, denboran zein espazioan", azaldu du Aritz Labrador bandako zuzendaria. Bandaren jardunerako, eta kulturarako orokorrean, hile gogorak izan direla adierazi du, baina denboraldi berriari ekite-

ko gogotsu daudela ere esan du zuzendari zornotzarrak.

"Haurtzarora itzulia"

Zapatu honetan izango da lehenengo kontzertua, 20:00etan, Zornotza Aretoan. Emanaldian marrazki bizidunetako eta haurrentzat sorturiko beste musika batzuk egongo dira gozagai. "Iraganeko oroitzapenetan ezkutaturiko haurtzarora itzulera izango da. Publiko guztiarentzat izango da eta haurrik txikiak hunkituko ditu. Eta hain txikiak ez direnak nostalgiko utziko ditu", laburtu du Labradorrek.

Bandarekin bidaian

- Urriaren 30ean, 'Haurtzarora bidaia',
- Abenduaren 18an, 'Bidaia hemen eta orain'
- 2022ko otsailaren 19an, 'Euskal Herritik bidaia'
- 2022ko apirilaren 9an, 'Bidaia barne-mundura'
- 2022ko otsailaren 19an, 'Euskal Herritik bidaia'
- 2022ko uztailean, 'Zornotzatik Zornotzara'

Uztargi.Klik elkarteak zornotzar guztiei zabalduko argazki lehiaketa antolatu du

Argazkilari bakoitzak bost irudi aurkeztu ahalko ditu. Argazkiak entregatzeko epea azaroaren 30era arte dago zabalik



Uztargik antolatutako argazki erakusketa.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Uztargi.Klik argazkilari elkarteak argazki lehiaketa antolatu du udalaren babesagaz. Interesdunek bost argazki aurkeztu ahal izango dituzte sari-kerara. Gaia libre izango da eta argazkiak zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahalko dira. Filtxategi digital bakoitzaren tamainari dagokionez, antolatzaileek zehaztu dute gutxienezko kalitatea 500 kilobitekoa izango dela. Beste baldintzetariko batzuk dira parte hartzaileak ezingo direla argazkilari profesionalak izan, ezta Uztargi.Klik elkarteko kide ere. Lehiaketan parte hartu gura

dutenek uztargiconcursos@gmail.com helbidera bidali beharko dituzte lanak. Azaroaren 30era arteko epea dago lehiaketan parte hartzeko.

Sari ugari

Sarituen izenak abenduaren 17an jakinaraziko dituzte, Zelaieta Zentroko aretoan egingo den ekitaldian. Honako sari hauek daude jokoan: adinbakoien kategorian, 150, 75, eta 50 euroko sariak lehenengo hirurentzat hurrenez hurren, eta norbere lana 40x50 zentimetro handitzea. Adinez nagusi direnen kategorian, 250, 150 eta 100 euroko sari bana.

Zornotzako Ogena auzoko fabrika bat okupatu dute barruan gaztetxea sortzeko

Zornotzako gazte mugimenduaren berbetan, "enpresa zarratuta dago 2009tik". Urriaren 20an okupatu zuten



Ogena auzoan okupatutako fabrika.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako gazte mugimenduak jakinarazi du eraikin bat okupatu duela, barruan gaztetxea egiteko. Okupaturiko eraikina Perforación S.A. lantegikoa da, Ogena auzoan dagoen fabrika. Bertako bulegoak eta lantegia okupatu dituzte. Gazte mugimenduko kideek diotenez, "2009tik dago eraikina hutsik". Okupazioa urriaren 20an gauzatu zuten eta gaztetxea atontzeko lanetan hasi dira dagoeneko.

Forjarien jauregia botata

Okupazio berri hau Forjarien jauregia hustu eta bota zutenetik aste gutxitara egin dute. Zornotzako gazte mugimenduko kideek diote udalerrian gaztetxe bat izateko "beharrizanak" bere horretan jarraitzen duela. "Argi dugu gure esku dauden baliabide guztiak erabiliko ditugula Zornotzan gaztetxe bat izateko", adierazi diote gazte mugimenduko kideek ANBOTOri.

Zapatuan argazki zaharren erakusketa egingo dute Garaiko Elizaberrin

Arratsaldean zabalduko dute erakusketa, 18:00etan

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak eta Gerediaga elkarteak antolatuta, zapatu honetan argazki zaharren erakusketa egingo dute. Erakusketa 18:00etan zabalduko dute eta Elizaberrin izango da. Urriaren hasieran, Gerediagak eta udalak

herritarrak deitu zituzten herriko usadio zaharrak agertzen zituzten argazkiak partekatzerako. Irudi horiek digitalizatu eta gero, jendaurrean erakutsiko dituzte. Egitasmoa Europako Jardunaldien barruan antolatu dute.



Garaiko Elizaberrin eliza.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza



UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza



Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Zubiakurte, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubio 19 B. Industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 852 779

Zurgintza



ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Parke berrirako dauden aukera bien arteko erdibideko bat landuko dute Mallabian

Proposamen biek antzeko boto kopurua jaso dute; beste herritar batzuk kritiko azaldu dira gobernu taldeak parte hartzeko prozesua aurrera eramateko izan duen moduagaz



Araztegiaren ondoan dagoen 11.000 metro karratuko espazioan egin gura dute parke berria.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Udalak parke berri bat egingo du Mallabiko araztegiaren ondoan dagoen 11.000 metro karratuko zelai batean. Proposamen bi landu dituzte eta irail amaieran biak ikusgai egon ziren kultur etxean. Herritarrek proposamen bien artean bozkatzeko aukera izan zuten. Proposamen batek kirol egitura gehiago aurreikusten zituen (padel pista, tirolina, pump track-a, petankarako gunea...) eta besteak espazio berde gehiago.

Parte hartzea "baxua" izan zela onartu du Igor Agirre alkateak: 94 herritarrek eman zuten iritzia. 30 lagunek kirolgune gehiagoren alde-

94 herritarrek eman zuten iritzia; parte hartze baxua egon dela onartu du Agirre alkateak

ko iritzia eman zuten, eta 36 beste aukeraren alde agertu ziren. Gainerako 28ek gobernu taldeak parte hartze prozesua aurrera eramateko izan duen modua kritikatu zuten.

Agirrek dio proposamen biek antzeko boto kopurua izan dutenez erdibideko bat landuko dutela, eta gero batzordean eztabaidatuko dutela. Parkea urtea amaitu aurretik onartzea da asmoa.

Argindarraren prezioaren igoera salatzen duen mozioa onartu dute Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Gobernu taldean dagoen EH Bilduren aldeko botoekin, argindarraren prezioaren igoera salatzen duen mozioa onartu zuten Mañariko azken udalbatzarrean. EAJ abstenitu egin zen.

Argindarraren prezioa "gobernuek, politikariek, konpainia elektrikoek eta denek partekatzen dituzten interes ekonomikoek sorturiko eta

Mozioak Euskal Herrirako "subiranotasun energetikoa" aldarrikatzen du

baimenduriko iruzurra da", mozioan jasotzen denez. Horren aurrean, Euskal Herrirako "subiranotasun energetikoa" aldarrikatu dute "bidezko sistemak arlo publikotik" eraikitzeko eta argindarra oinarritzeko ondasun eta eskubide lez errespetatzeko".

Hamabost postugaz, askotariko produktuen merkatua egingo dute Otxandioko plazan, domekan

Gorbeialdi elkartearen 'Herri bat, merkatu bat' egitasmoak gune berriak eskaini gura dizkie ekoizleei euren produktuak saltzeko

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Domekan askotariko produktuen merkatua egingo dute Otxandion, 10:00etatik 14:00etara. Guztira, Bizkaiko hainbat herritako 15 postu egongo dira udaletxe pareko plazan.

Durangaldeko hiru ekoizle egongo dira eta eurretariako bi Otxandiokoak dira: Andoni Padilla gaztagaz eta Harrikoskor denda poltsekin, jolasekin eta abarrekin. Eskualdeko hirugarren ekoizlea mañariarra da: Uranga baserria,

Otxandioko ekoizle bi egongo dira artean: Andoni Padilla gaztagaz, eta Harrikoskor poltsekin



Apirilean Otxandion egindako merkatua.

Merkatuan erosketaren bat egingen dutenen artean produktuz betetako otzara bat zozketatuko dute.

Ekimen berria

Azoka Gorbeialde elkartearen eta Otxandioko Udalaren artean antolatuko dute, Aldundiaren laguntzarekin. Gorbeialdek Herri

bat, merkatu bat izeneko programa berri bat abiatu zuen iaz. Herrie-

Merkatuan erosketaren bat egiten dutenen artean produktuen otzara bat zozketatuko dute

tan antolatu ohi diren ohiko azokez gainera —Otxandiokoa abenduan izaten da—, berri batzuk antolatzea eta ekoizleei euren produktuak saltzeko gune gehiago eskaintzea da ekimenaren helburua. Egitasmo honen barruan apirilean ere egin zuten azoka bat Otxandion.

ogiagaz. Horrez gainera, Dimako ezta, Mungiako pateia eta piperrak, Igorreko ahuntz gazta eta barazkiak, Orozkoko euskal pastela eta Aramaioko gazta erosi ahalko dira, besteak beste.


HAP0a hasieran onartuta, alegazioei erantzutea da hurrengo urratsa

IZURTZA • J.D.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartzeko prozesua aurrera doa apurka-apurka. Udalbatzarrak hasierako onarpena eman dio planari eta horren ondoren martxan ipini beharreko emendakinen epealdia ere amaitu da. Hainbat alegazio aukeztu da epealdi horietan, eta alegazioak udaleko batzorde batean aztertzea izango da hurrengo urratsa, udal ordezkariak azaldu dutenez.

Horren ondoren, plana udalbatzarrerara eramango dute berriro, behin behinean onartzeko. Gero, hainbat erakunderen onspena jaso beharko du: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarena, Bizkaiko Aldundiko Errepideak Sailarena... Prozesu hori amaitu eta gero, udalbatzarrak behin betiko onartu ahalko du.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ Podologia klinika PAUSO

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Zuzeneko hiru musika kontzertuk osatuko dute azaroaren 12an hasiko den Iurretako Musikaldia

Azaroako lehenengo hiru barikuetan izango dira, Ibarretxe kultur etxean; sarrerak, doakoak, kultur etxean bertan lortu daitezke



Estitxu Pinatxo izango da Musikaldiko protagonistetarikoa bat.

IURRETA • J.D.

Iazko parentesiaren ondoren, Iurretako Musikaldia bueltan da. Azaroako hiru barikuetan Ibarretxe kultur etxean izango diren hiru zuzeneko osatzen dute aurtengo programa.

Azaroaren 15ean, *Del barroco al jazz* izeneko zuzeneko eskainiko dute Duo Orreaga taldeko Ana Sarobe flautistak eta Raquel Vergara pianistak.

Azaroaren 12an, Trio Syrinx taldearen txanda izango da. Kasu honetan, hirukote batek osatzen du taldea: Roberto Casado eta Unai Casado flautistek eta Javier Yera biolontxelo-joleak.

Estitxu Pinatxoren kontzertuak ipiniko dio amaiera aurtengo Musikaldiari, azaroaren 19an. Soularen eta musika beltzaren ikutu nabarmenak dituen bere lan berria aurkeztuko du.

Kontzertu guztiak 19:00etan hasiko dira. Sarrerak doan eskuratu daitezke, Ibarretxe kultur etxean, ikuskizunaren aurreko astean eta baita kontzertu egunean bertan ere, 18:30ean.

Bazkideek Zaldibarko Verter Recycling enpresa desagitea erabaki dute, aho batez

ZALDIBAR • A.M./J.D.

Zaldibarko Verter Recycling 2002 SLko bazkideek batzar nagusian aho batez "sozietatea deuseztatzea eta likidazio-aldia abiaraztea" erabaki dutela jakinarazi du enpresak ohar baten bitartez.

Irailaren hasieran, Verter Recyclingen abokatuek akordio bat sinatu zuten Zaldibarko zabortegean hildako behargin bien familiekin eta fiskalagaz. Horren ondoren etorri zen enpresa behin betiko desagiteko erabakia. Enpresatik jakinarazi dutenez, akordioa "behar den moduan" jaso dute Merkataritza Erregistroan, eta baita Merkataritza Erregistroaren Aldizkari ofizialean ere. Aldizkari horretan publikatu eta hurrengo egunean egin du publiko Verter Recyclingek erabakia, ohar baten bitartez.



2020ko otsailean amildu zen Zaldibarko zabortegea.

Merkatariei zuzenduriko ikastaroa martxan, Abadiñon

Saltokiei aholkuak emango dizkiete marketin estrategia orokor bat eraiki dezaten euren negozioa gidatzeko

ABADIÑO • J.D.

Abadiñoko Udalak merkatariei zuzenduriko doako ikastaro bat antolatuko du. Gai zerrendan, enpresarako komunikazio- eta marketin-plan bat sortzea, marketin- estrategia orokor bat planteatzea, eta saltoki bakoitzeko 30 minutuko banakako saio bat egitea sartzen dira.

Aurrez aurreko prestakuntza gaztelaniaz izango da eta Errota Kultur Etxean emango dute, azaroaren 9an eta 17an, 14:45etik 16:15era. Banakako mentoring-a Internetez edo aurrez aurre egin ahal izango da, datorren abenduan, hilaren 1ean eta 15ean. Izen ematea azaroaren 5era arte egongo da

zabalik, 94 6215534 telefono zenbakiaren edo helbide elektroniko honen bitartez: haz@abadiano.eus.

Arreta pertsonalizatua

Saio horietan, beharizanen araberako proposamen estrategiko pertsonalizatua egingo da eta enpresa bakoitzari bere negozioarako estrategia zehatzak aplikatu ahal izateko gidaritza emango zaio.

Programak, gainera, plan estrategikoaren jarraipena egiteko prestakuntza jasotzen du, egindako ekintzak kontuan hartuta, eta baita hurrengo hiruhilekorako antolaketa proposamena eta lorturiko emaitzen arabera ekintza-proposamena ere.

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era

Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

Elkartasun keinuak Durangaldean Atxondoko errefuxiatuei laguntzeko

Ibaizabal Ikastolako HH2ko ikasleek elkartasun jaialdia antolatu dute gaur arratsalderako



Joan zen eguaztenean Atxondon egindako agur ekitaldiko argazkia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urriaren 14an patera bat hondoratu zen Trafalgar lurmuturrean, Cadizen. Gertakari latz horretan, Atxondon bizi diren hiru lagunak senitartekoak hil ziren, eta orain finantziazioa behar dute sendeen gorpuak aberriratzeko.

Atxondon dauden errefuxiatuei laguntzeko asmoz, Ibaizabal ikas-

tolako HH2ko ikasleek elkartasun jaialdia antolatu dute. Sorginolan egingo dute, gaur arratsaldean. Bigarren eskuko elkartasun azoka batez emango diote hasiera jaialdiari. Azoka 17:00etan izango da. Azokaren ondoren, kontzertuak egongo dira. 18:00etatik 21:30era bitartean, Parkatu, BPP eta Erruki erromeria taldeek es-

kainiko dute kontzertua. Kontzertuetara joan gura duenak 3 euro ordaindu beharko ditu.

Laminak 20 euroren truke

Bestalde, Eñaut Aiartzaguena iurretarrak 'Bizitzak erdigunera' laminak ipini ditu salgai, Urluma markapean. Laminak A5 tamainakoak dira eta iurretarrak

etxera bidaltzen ditu, 20 euroren truke. Aiartzaguena jakinarazi duenez, bidalketa gastuak kenduta, laminekin ateratako diru guztia Atxondoko Harrera taldekoei emango die.

Laminak eskuratu gura dituenak irribarrez.tirak@gmail.com helbidera idatzita ipini daiteke hartu-emanetan Aiartzaguena.

Tirabira udalean

Bestalde, Atxondoko EH Bilduk prentsa ohar bat kaleratu du gai honetan udalak izan duen jokatibidea salatzen. "Atxondoko Udalaren immobilismo lotsagarria publiko egin eta salatu gura dugu. Udalarentzat maila ezberdinetako herritarrak daude eta horrela jokatzeko. Alkateari eta bere alderdiari tragedia honen aurrean pauso eta konpromiso politiko zehatzak eskatu dizkiegu", salatu dute EH Bildukoek.

Oposizioari erantzunez, gobernu taldeak oharra kaleratu du eta jakinarazi du Eusko Jaurlaritzagaz lanean dabilela errefuxiatuen senitartekoen gorpuak aberriratzeko. Horrez gainera, gobernu taldeak EH Bilduren jarrera deitoratu du. "EH Bilduk emozionalki gogorak diren gaiak politizatu eta horiei etekina ateratzea baino ez du gura", amaitu dute.

Berrizen 'Berbalapiko' hiztegia sortu gura dute herritarrekin elkarlanean

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udaleko Euskara Sailak 'Berbalapiko' hiztegia sortu gura du herriko gazte eta adinekoekin elkarlanean.

Udaletik jakinarazi dutenez, Bizkaian eta Berrizen bertan erabiltzen diren berba propioak batzea eta berba zaharrei esangura gaurkotua eranstea, eta gero horiek erabiltzea da helburua. "Horretarako, gazteekin, ikasleekin, herriko nagusiekin eta eskaldun zaharrekin egongo gara, ahalik eta berbarik gehien jasotzeko eta zabaltzeko", azaldu dute udaleko ardura-dunek.

Horrez gainera, ekarpenak bidaltzeko gonbidapena egin diete Berrizko Udaletik herritarrei, euskara@berriz.eus helbidera idatzita.

Behin hiztegia osatuta, Berrizko eskolako ikasle guztiei banatuko diete, eta hiztegia osatzen parte hartu duten guztiei ere bai.

Protestak AHTko obretako kamioiak herritik ateratzeko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko AHTaren kontrako plataformak AHTko lanetan dabilzan kamioiak herrigunetik ez pasatzeko eskatu dio behin baino gehiagotan udalari azkenaldian. Esate baterako, iazko ikasturte amaieran sinadura bilketa bat egin zuten, kamioien ibilbidea herrigunetik ez izateko. Sinadura horiek udaletxean aurkeztu zituzten, eta, plataformakoek jakinarazi dutenez, mozioa aho batez onartu zuten. "Hala ere, Adifek kamioiak herrigunetik bidaltzen jarraitzen

du, legetik kanpora", adierazi dute plataformakoek.

Herri ekimenak

Hori salatu eta kamioien joan-etorria gelditzeko asmoz, herri ekimenak egiten dabilza Atxondon. Astelehenean, esate baterako, hainbat pertsonak protesta egin zuten. Atxondoko zebrabide bat gurutzatzen aritu ziren etenik barik.

Bestalde, herriko hainbat ume eta familiak AHTaren arukako pankartak egin zituzten eskola inguruan ipintzeko.



Herritarrek egindako pankartak eskolan ipiniko dituzte.

San Juan-Elizalde bidegurutzeari hobetzea aurrekontu parte hartzaileetan bozkatuena

Elorrioko Udalak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez, 277 pertsonak parte hartu dute aurrekontu parte hartzaileetan, eta proiekturik bozkatuena 45 boto jaso ditu



ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak aurrekontu parte hartzaileetako emaitzak jakinarazi ditu. Guztira, 277 elorriarrek parte hartu dute, eta sei proposamenetik bat aukeratu dute urriaren 1etik 15era bitartean.

Elorrioko Udalak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez,

San Juan-Elizalde bidegurutzeari hobetzea izan da aurrekontu parte hartzaileetako proiekturik bozkatuena. Bertan, oinezkoiei eta bizikletariei lehentasuna emango zaie. Proposamen honek 45 boto jaso ditu guztira.

"Gobernu talde honentzat funtsezkoa da parte hartzea; herritarrei entzutea udal kudeaketa

ulertzeko dugun moduaren parte da, eta inkestean bitartez egiten den kontsulta mota hori entzuteko modu bat da. Emaitza horiekin, gure bizilagunek adierazi dute zein proiektutara bideratu gura duten 50.000 euroko udal aurrekontua", adierazi dute Elorrioko Udaletik. Proiektua 2022an gauzatzeko hasten aurreikusitua dute.

Bizikletak konpontzeko eta mantentzeko zortzi BiziPuntu gune estreinatu dituzte



Martitzenean egin zuten prentsaurrekoa Ermuan.

DURANGALDEA • E.H.

Bizkaiko Foru Aldundiak bizikletak konpontzeko eta mantentzeko zortzi BiziPuntu gune ipini ditu Durangaldean: Abadiñon, Berrizen, Durangon, Elorrioren, Iurretan, Izurtzan eta Zornotzan. Bizkaiko Foru Aldundiak horrelako beste 63 BiziPuntu ipini gura ditu urtea amaitu aurretik.

"Funtsezko baliabidea da Bizkaian bultzatu gura dugun mugikortasun iraunkorreko eredu sustatzeko; eredu horren barruan, bizikleta ohiko garraiobide lez erabiltzea da ardatzatariko bat, bera bakarrik edo beste garraio mota batzuekin konbinatuta", gogorarazi du Miguel Ángel Gómez Viarrek, Saileko titularrak.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Berraktibatu Durango

COVID-19ak eragindako munduko pandemiak argi erakutsi diguna da gure herriko merkataria eta ostalariak zaindu behar ditugula, inguruko ekonomiaren motore baitira. Multinazional eta makro enpresek ere pandemiak eragindako krisi ekonomikoa jasan dute, baina ez herriko merkataria eta ostalari txikiak lez.

2020. urtean zehar, hainbatetan itxi behar izan dute Durangoko ostalariak beraien saltokia, etxera eramateko zerbitzua besterik ezin izan dute egin eta berau ordutegi oso zorrotz batekin. Horrela, gure herriko hainbat taberna eta jatetxe betiko itxi dituzte atean.

Udaletik herriko ekonomia sustatu beharraz kontziente izan gara beti. Krisi ekonomiko eta sozial hau hasi zenean berraktibazio plana martxan jarri genuen eta helburua lortzeko neurriak hartu genituen. Online Durangoko dendetan erosteko plataforma sortuz, bonu kanpaina ezberdinak eginez (ekainean, irailean eta abenduan gehien bat) eta joan den astean salgai jarri ziren Gastrobonoak eskainiz. Horrela, bertako enpresa txikiak produktuak ezagutzera eman eta saltzea lortu dugu.

Guztira, 3.500 bonu kale-ratu ditugu. Erosleak 10 euro ordaindu eta 20 euroko bonua jasoko du herriko taberna edo jatetxeetan gastatzeko. Neurri honekin, herritarrek gure herrian kontsumitzera bultzatzen ditugu, gure ekonomiaren erdigune baitira herriko denda eta taberna txikiak.

Dagoeneko ia ez da Gastrobonorik salgai geratuko, beraz, ez zaitez atzean gelditu, Berraktibatu Durango!

Durangaldea asteen

Ernaik Elorrioko gazte asteburua antolatu du azaroaren 5etik 7ko astebururako

Elorrio | Ernaik gazte asteburua antolatu du azaroaren lehenengo astebururako. Barikuan, 17:30ean, jardunaldi nazionalen aurkezpenagaz emango diote hasiera asteburuari. Egitarau zabala antolatu dute: gazte sortzaileen azoka, gazte bazkaria eta elkartasun kontzertuak, besteak beste. Ekintzak Portalekuan, Gaztetxean eta plazako frontoian izango dira.

Durango 'Heriotzari Bizitza Emanez' jaialdian parte hartuko du

Durango | Nazioartean egiten den 'Heriotzari Bizitza Emanez' jaialdiaren bigarren edizioa egiten dabilza Durangon. "Heriotzaren gaia tabua da gure gizartean, eta, beraz, gaian adituak direnekin batera hori jorratu gura dugu", azaldu dute udal arduradunek. Hori horrela, 'Death cafe' bi egingo dituzte eta baita 'Hil aurretik zera izan nahi dut' jarduerak ere.

Zornotzako Udalak ikasleen, artisten eta elkarten sorkuntza bultzatuko du

Zornotza | Zornotzako Udalak 'KM0 2022' ekimena ipini du martxan. Ekimena herriko ikasle, artista eta elkarteei zuzenduta dago eta helburua banaka, taldean edo enpresa baten bitartez sorkuntzan hasi gura duten zornotzarrei presentzia ematea da. Programan izena ematen dutenek euren lanak udal espazio batean lantzeko edo aurkezteko aukera izango dute.



Gijongo Nestor López artistak irabazi du Elorrioko Errebonbillo pintura lehiaketa

Elorrio | Errebonbillo pintura lehiaketa egin da asteburuan Elorrioren, eta, guztira, 27 artistak parte hartu dute. Lehiaketa Gijongo Nestor Lópezek irabazi du, 'Erreka kalea' lanagaz. Bigarren saria Manresako Julia Juncadella artistarentzat izan da, eta hirugarren saria Eduardo Alsasua nafarrantzat. Sari horiez gainera, beste sari bi ere banandu dituzte, herriko lehenengoa eta bigarrena. Sari horiek Juan Mari Lersundik eta Roberto Urizarrek irabazi dituzte.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ


Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BURUARI KLIK!



LABIRINTOA


Alboko labirinto honetan
dauden galtzerdi guztiak
jaso behar dira.
Lerro bakar batean eta lerroa
gurutzatu edo gainjarri
barik.



BERDINAK TOPATU



SUDOKUA



Kokatu beheko galtzerdiak
lauki zurietan.



Gela bi hauetan ezberdinak diren bost gauza daude. Zeintzuk?





'Emakumeak'

DANTZA ELORRIO :: Urriaren 29an

Ikuskizun multimedia, Node konpainiaren eskutik

El Salvadorren abortu-delitua egoztita espetxeratu dituzten emakumeak gogoratu eta omentzeko sorturiko diziplina anitzeko proiektua da *Emakumeak*, izen bereko dantza ikuskizunak, *La historia de todas nosotras* dokumentalak eta *Emakume guztiok* eleberririk grafikoak osaturiko. Eszenan emakume bi, irmoak eta ausartak. Bidaia inpo-

satu eta bortxatu bat egitera behar-tuak, baina elkarregaz, askatasu-nean amaiera bat lortzen dutenak.

NODE konpainiak sorturiko ikuskizuna ikusteko aukera egongo da, gaur, Arriola antzokian. Ion Estalak zuzenduta arituko dira eszenatokian Myriam Pérez Cazabón eta Jone Amezaga dantzariak, 20:00etan.

Urriaren 29an

DURANGO antzerkia

'Andante' (Markeliñe), 22:00etan, Landako Gunean.

DURANGO kirola

XI. Peter Memoria, 19:30ean, Ezkurdi Jai Alain.

IURRETA ipuin kontalaria

'Izena dekona bada' Oihana Etxegibel ipuin kontalariaren eskutik, 17:00etan, liburutegian.

ZORNOTZA antzerkia

'Maitasunaren itxiera' (Eneko Sagardoy eta Miren Gaztañaga), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 30ean

BERRIZ ikuskizuna

'Idi begi' (Larrua Proiektua), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO musika

Izaro, 22:00etan, Landako Gunean.

DURANGO ikastaroa

Haloween mozorroren ikastaroa, 11:00etan, San Agustin kulturgunean. 6 urtetik gorako umeei zuzenduta.

ELORRIO bertsoak

Bizkaiko Bertsolari

Txapelketa: Aitor Arrutia Azkueta, Igor Galarza Intxausti, Imanol Arrutia Azkueta, Imanol Uriá Albizuri, Iñaki Iturriotz Zuluaga eta Peru de Pedro Larrea, 17:00etan, Arriolan.

GARAI erakusketa

Argazki zaharren erakusketa, 18:00etan, Elizabarrin.

OTXANDIO asteburu baltza

Susto lehiaketa, egun osoan. Kontzertua: Laru + Zarata Selektion, 22:00etan.

ZORNOTZA musika

'Haurtzarora bidaia' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 31n

DURANGO ikuskizuna

'Liluragarria' (Ene Kantak), 12:00etan eta 17:00etan, Landako Gunean.

DURANGO musika

'Wasted' (Producciones en Crudo), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA gaba baltza

'Amaren intxaurreak' intxaurren landaketa, 12:00etan, Maiztegiako frontoiaren alboan.

Kalabaza eta jantzi tailerra,

17:00etan, plazan.

'Izarretako lore' antzerkia,

19:00etan, plazan.

'Egin dezagun dantza!'

ekitaldia, 20:30ean plazan.

Kontzertua: Txalainak,

22:00etan, Gaztetxean.

OTXANDIO asteburu baltza

Susto lehiaketa, egun osoan.

Kalabaza tailerra,

17:00etan, plazan.

OTXANDIO azoka

Otxandioko merkatua, 10:00etatik 14:00etara, plazan.

ZORNOTZA erreitaldia

'Bizi min' olerki liburuaren (Jon Ander Urkiaga) erreitaldia, Uxue Alberdi eta Unai Iturriagaren eskutik, 18:30ean, Zelaieta zentroan.

Azaroaren 5ean

DURANGO musika

Puro Relajo, 22:00etan, Landako Gunean.

DURANGO musika

Organo kontzertua: Ignacio Arakistainek (organo-jotzailea) eta Xabier Barriolak (tenorea) Valentín Larrea Yturberen lanak eskainiko dituzte, 20:15ean, San Frantzisko elizan.

ELORRIO lehiaketa

'24 ordu digitaletan' Arriolako Film Laburren Lehiaketa. Oinarriak azalduko dituzte 17:00etan, Arriola antzokian. parte hartzaileek 24 ordu dituzte lanak aurkezteko.

ELORRIO antzerkia

'Harri, orri, har' (Pez Limbo), 19:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA musika

'Del barroco al jazz' (Duo Orreaga), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Azaroaren 6an

DURANGO merkatu txikia

Mendiko merkatu txikia, Alpino Mendi Taldeak Goienkalen duen egoitzan. Gaur, 17:00etatik 21:00etara. Blhar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Azaroaren 6an

BERRIZ antzerkia

'Zoak pake santuan' (Txalo Produzkieok) 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO dantza

Dantza modernoa eta urbanoa (L'Atelier eskola), 18:00etan, Landako Gunean.

ELORRIO film laburrak

'24 ordu digitaletan' Arriolako Film Laburren Lehiaketan aurkezturiko lanen emanaldia, 20:00etan, Arriola antzokian. Ondoren, sarien banaketa egingo da.

ZORNOTZA antzerkia

'Altsasu' (La Dramática Herrante), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren zehar

DURANGO erakusketa

'DG02021' (Txelu Angoitia) + 'Hiru dokumentu akelarre batentzat' (Ander Berrojalbiz)+ 'Gogoratzen' (Amaia Lejarreta), Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Abadiño ERROTA

• *Siempre contigo*

zapatua 30: 19:00

• *Ninja a cuadros 2:*

Misión Tailandia

domeka 31: 17:00

:: Berriz KULTUR ETXEA

• *Madres paralelas*

barikua 29: 19:00

domeka 31: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• *Érase una vez en Euskadi*

barikua 29: 19:00/22:00

zapatua 30: 17:30/19:30/22:00

domeka 31: 18:00/20:00

astelehena 1: 18:00/20:00

martitzena 2: 18:00/20:15

eguzatena 3: 18:00/20:15

• *El último duelo*

barikua 29: 19:00/21:15

zapatua 30: 16:45/19:00/21:30

domeka 31: 17:15/19:30

astelehena 1: 17:15/19:30

martitzena 2: 19:00

eguzatena 3: 19:00

• *El espía inglés*

barikua 29: 19:00/22:00

zapatua 30: 19:45/22:00

domeka 31: 20:00

astelehena 1: 20:00

martitzena 2: 18:00/20:15

eguzatena 3: 18:00/20:15

• *Ron da error*

zapatua 30: 16:45

domeka 31: 12:00/17:00

astelehena 1: 12:00/17:00

• *Tom eta Jerry*

domeka 31: 12:00

:: Elorrio ARRIOLA

• *Adiós, idiotas*

domeka 31: 20:00

astelehena 1: 20:00

• *Sablehortz kapitaina eta diamante magikoa*

domeka 31: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• *Entre Rosas*

domeka 31: 20:00

astelehena 1: 20:15

Dos colegas y la Gran Bestia

domeka 31: 17:00



Ostalaritza gida



Durango



OIERDI

Herriko gudarien 8, DURANGO

Tel.: 946 129 824

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



Iurreta



GAUARGI

Dantzari Etxetaldea, IURRETA

Tel.: 944 356 674

·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...



Durango



AI AMA

Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO

Tel.: 946 232 240

Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!



Abadiño



ABARKETERUENA


Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



Durango




MIKELDI TABERNA

Kalebarria, 7 - DURANGO

Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Arkaitz Cayado 'Itsua'-k bizi osoa darama musika egiten. Etenik barik sortzen eta ekoizten du musika. 'Alma negra', publikatu duen azken lana, angolar jatorriko Sinua abeslari bilbotarragaz batera sinatu du. Sinua Euskal Herrian bizi da, berak eta gurasoek Angolatik ihes egin zutenetik. "Showman eta speaker" lez definitzen du bere burua, baina, horrez gainera, Euskal Herriko hip hop mugimenduko kidea da, N2ogu, +Kesoul edo La dolce rima kolektiboetako parte. 'Itsua'-k, rapeatzailea izateaz gainera, soul eta R&B doinuetarako gaitasuna duela nabarmendu du, eta horri lotuta, mimos prestatu dizkio instrumentalak. 'Alma negra'-k astebete baino ez darama kalean, eta denbora honetan Amazon Music zerrendan sartzeak duen garrantzia ere nabarmendu du musikari durangarrak.

Nondik dator elkarlan hau?

Sinuak eta biok aspalditik ezagutzen dugu elkar. Sortzez angolarra da, baina, txikitik, bere gurasoekin batera ihes egin zuen eta Euskal Herrira etorri ziren. +Kesoul deitzen zen talde bateko kidea zen eta gauza pare bat elkarregaz kaleratu genituen. Lan hau orain urte mordoasi genuen, baina bidean aita izan zen, baita ni ere, eta beste hainbat kontutan ere ibili gara. Pandemiaren eraginez, baina, abesti zaharren bat berreskuratu nuen, eta fresko irauten zuela iruditu zitzaidan. Horren ondoren, Sinuari idatzi nion proiektuari berrekin behar geniola esateko. Aurreko kanta horiek borobildu, eta kanta berriak ere sartu ditugu diskoan azkenean.

'Alma negra'. Oso disko beltza geratu zaizue. Horixe zen asmoa hasieratik?

Ez, bidea egin ahala landu dugun zerbait izan da. Letra batzuk aspaldikoak dira, baina erreskatatu egin ditugu. Esango nuke Black lives matter [beltzen biziak inporta du] mugimenduak kontzientziak astindu zituela, bai komunitate zurian, baita beltzean ere. Gizartean aspalditik dagoen aldarrikapen bat da, behar bada ekologismoaren moduan, era-

“Bidean topatzen dudan guztia nire erritmo entsaladara botatzen dut; hortik dator Beat Salad”

'Alma negra' deitzen da Itsuak eta Sinuak Beat Salad diskoetxeagaz publikatu duten lan berria; zapatuan Bilbon aurkezteko dute, Gunflow eta Peio durangarrekin batera



kundeek ere bere egin dutena, eta honek balio dezake beste buelta bat emateko.

Zelan landu dituzu instrumentalak?

Nik sampling estiloa lantzen dut, biniloetatik, eta nire eskuetara jausten den dena sanpleatzen dut, berdin dit zein doinu den. Eta nire musika egiteko erabiltzen dut. Kasu honetan, instrumentalak Sinuari begirakoak egin ditut, rapeatzeaz gainera, abestu ere egiten duelako berak; soul eta R&B doinuetan ondo konpontzen da, eta hori aprobetxatu gura nuen. Gitarrak eta tronpetak ere sartu ditut, agian beste lan batzuetan ere erabili

'Alma negra', orri-markatzaileetako QR kodeetan

Itsuak eta Beat Saladek diskoak KD formatuan ez kaleratzeko erabakia hartu zuten. Buruari eta imajinarioari eraginginda, eta baliabide teknologikoen erraztasunekin, beselako formatu berezietan kaleratu dituzte euren azken lanak. Peiogaz batera kaleratu zuen 'Jostailua eta harria' txiskeroetan saldu zuten, eta

'Supreme salad' postaletan; bietan, QR bidez deskargatu zitekeen musika. 'Alma negra', ostera, orri-markatzaileetan kaleratuko dute. "Deskarga txartelak dira azken finean, baina zerbait txukuna egiten ahalegintzen gara. Ahal dugunean, biniloan ateratzen ahalegintzen gara, baina kasu denetan ezin da".

ditudanak, baina oraingoan presenteko egon direnak. Esango nuke lan hau organikoagoa dela. **Musika egiteko oso modu kolektibo dazula esango nuke.**

Alma negrako abesti bakarrak ez du kolaboraziorik. Beat Saladegaz hamahiru urte inguru daramatzat musika egiten, eta aurretik Kaspas de ratan ere egiten nuen musika, hamahiru urte nituenetik, eta horri eskerrak jende asko ezagutu dut musikan. Orain arte, kolaborazio asko ahotsenak izan dira, baina oraingoan musikariekin ere egin gura izan dut. Nik musika modu kolaboratibo batean ulertzen dut, ekarpena egin eta ikastea oinarritzen dena. Bidean topatzen dudan guztia nire erritmo entsaladara botatzen dut, hortik dator Beat Salad (barrez).

Azaroaren 13an Berrizko Hiltegixen joko dugu, 20an Iurretako Abadetxean, eta abenduaren 25ean Txo! tabernaren urteurrenean

Zapatuan aurkeztuko duzue, zuzenean.

Bilboko Mytho aretoan aurkeztuko dugu. Gure aurretik, Peio eta Gunflow durangarrek abesti batzuk joko dituzte, eta euren ondoren guk diskoa osorik aurkeztuko dugu. Horrez gainera, azaroaren 13an Berrizko Hiltegixen, 20an Iurretako Abadetxean eta abenduaren 25ean Durangoko Txo! tabernan ere joko dugu. Kontzertuak jai lez planteatzen ahalegintzen gara. Uste dugu horrek berezi egiten dituela kontzertuak, dinamikoagoak; hainbat abeslari igotzen dira taula gainera, hizkuntza desberdinetan abesten dute, eta, gainera, dena erdi inprobisatuta dago. Udan Durangon jo genuen, eta jende asko etorri zen gugana oso gustura egon zela esatera. Asko hip hop munduagaz hartuemanik ez duena, gainera!



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari
Nafarroa hego eta erdialdean



errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Herriak egiten du herria



DA! PRO sortzaileentzako topaguneak lau eguneko egitaraua izango du aurten

Abenduaren 1etik 4ra bitartean egingo da sortzaileentzako topagune profesionala



Eguaztenez aurkeztu zuten egitasmoa Bilbon.

DURANGOKO AZOKA • A.M.

Durangoko Azokaren barruan kulturako profesionali begira antolatzen den DA! PRO egitasmoa abenduaren 1etik 4ra egingo dute aurten. Egitarau zabalago batez, egitasmoaren edizio berria "indartuta" helduko da. Gerediaga elkarteko kudeatzaile Beñat Gaztelurrutiaren esanetan. "Orain dela hiru urte hasitako bidea sakondu gura izan dugu, DA! PROri bultzada sendoagoa emanda. Sortzaileentzako topagune bat sortu gura dugu, arlo honetako profesionalen hartu-emanetan ipintzeko, etorkizuneko proiektu berriak sortzeko aukera

aztertzeko", azaldu zuen Gaztelurrutiak eguaztenez Bilbon egin zuten aurkezpenean.

Parte hartzea doakoa bada ere, lehenengo hiru egunetako ekitaldiarako izena eman beharko da aurretik. Topagunea Durangoko San Agustin kulturagunean, Bizenta Mogel Bibliotekan, Zugazan eta Landako Gunean egingo da.

Topagunearen bitartez, bidea egiteko beharrezkoak dituzten baliabideak garatzeko aukerak eskaini gura dizkiete profesionalak. "Euren proiektu berriak ezaugarri, merkaturatzeko bideak zehaztu, eurentzat bitarteko

baliagarriak zeintzuk izan daitezkeen aztertu...", nabarmendu zuen Gerediagako kudeatzaileak. Abenduaren 1ean eta 2an, musikariek eta familia-ikuskizunetako sortzaileek euren lanak programatzaileen aurrean aurkezteko aukera izango dute. Bestalde, abenduaren 3an, literatura lan batek zinemarako bidea egiteko zer-nolako prozesuari jarraitu behar dion aztertuko da idazle, editore eta ekoizleen eskutik. Abenduaren 4rako, solasaldia antolatu dute, egile eskubideei, komunikazioari eta kontratazioei buruz berbetako, besteak beste.

Bizkaiko bertsolari txapelketako hurrengo kanporaketa, Elorrion

Zapatuan izango da, 17:00etan, Arriola Antzokian; Igor Galarza bertsolari abadiñarrak abestuko du bertan

BERTSOLARITZA • A.M.

Igor Galarza abadiñarrak Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bosgarren kanporaketan abestuko du, zapatu honetan; Arriola antzokian izango da saioa, 17:00etan. Galarzaz gainera, Aitor Arrutiak, Imanol Arrutiak, Imanol Uriak, Iñaki Iturriozek eta Peru de Pedrok abestuko dute. Saioko irabazlea zuzenean sailkatuko da finalurrekoetara; gainerakoek puntuazioaren arabera edukiko dute horretarako aukera. Gai-jar-

tzaile beharretan Idoia Anzorandia arituko da. Kanporaketa honen ondoren, beste bat geratuko da finalurrekoak erabakitzeko.

Lagoma finalurrekoetan

Bestalde, Erika Lagomak Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalurrekoan abestuko du, azaroaren 1ean, Altsasun. Kanporaketa Iortia kulturagunean izango da, 17:30ean. Kanporaketetarako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian erosi daitezke.



Saioko parte hartzaileak.

Gai librea

Gorrotoa

Irakurtzen ez genekienean, kapitelen erromanikoen irudiak ziren gure eskola liburuak. Irudi izugarriak ikusten genituen haietan. Piztiak. Munstroak. Esaterako, grifoak (arrano buru eta perrak dituen lehoia), arpiak (emakume burua, hegazti gorputza, ahuntz hankak eta narrastunaren buztana), sirenak (emakumea gerritik gora eta arraina gerritik behera), zentauroak (gizaki-burua eta zaldi gorputza), basiliskoak (oilarra suge buztanaz), zazpi buruko hidrak eta abar. Bestiarro erromaniko beretsua ikusten genuen elizak eliza eta hari esker ondotoxoa ikasi genuen desberdinek zekartzatela galbidea, infernua, bekatua, arima erruduna eta gauza txar guztiak.

Pentsamenduaren historian inpirazio iturri handia izan dute aipatu dugun kristautasunak bezalaxe beste taxonomia batzuek ere norbanakoaren balio moralen eraikuntzan.



Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

Desberdinari diogun beldurretik omen dator gorrotoa. Gorrotoa: Norbaitenganako gaizkinahizko sentimen bortitza; zerbait buruzko higuin edo herra bizia, Euskaltzaindiaren definizioan. Beldurretik, gorrotoz begiratzea dator. Gorrotoz begiratzetik, gorrotoak itsuaraztea eta, ondoren, jarrera irrazionalak.

Gorrotoa modan dago, hala ere. Gorrotatzaileak hater-rak dira sare sozialetan. Antzeko gorrotoa dutenen arteko harremanak errazteko aplikazioak existitzen dira. Ez dakit "gorroto zaitut" ala "maite zaitut" esateko eta entzuteko beharrak bultzatuta existitzen ote diren. Paradoxikoak aplikazioak: gorrotoa eta maitasuna antonimoen topalekuak.

Gorrotoa modan dago baina delitua da: gorroto delitua. Delitu-mota horren ezaugarri nagusia egilearen motibazioa da, hots, desberdintzat jotzen dituenekiko gaitzespena edo etsaitasuna. Legegileen definizioa. Albistegietan, hala

ere, gaitzespen eta etsaitasuna gauzatu-ta ikusten ditugu etengabe eta haratago doazen jarrerak ere bai: bortizkeria, erasoak, jotzea, aurpegia desitxuratzea, zapaltzea, min fisikoa eragitea, odola isuraraztea. Beti (des)berdintasunaren izenean: politegia zarelako, ama aspergarria zarelako, begirada baketsuegia duzulako, ... Bideo-jokoetako jarrera zirrargarri berberak. Txipiroiaren jokoa?

Borgesek aipatzen zuen Txinako entziklopedia batean animaliak honela sailkatzen zirela: enperadorearen jabeagoak, enbalsamatuak, hezituak, txakur askeak, gamelu ilezko pintzel oso finez margotutakoak, jarroi bat apurtu berri dutenak, zoroen antzera astintzen direnak, zenbatezinak, urrunetik euli antza dutenak, ... Taxonomia horrek ez du parametro jakirik. Pertsonen aniztasunak bezalaxe.

Gorrotoa. Kakofono hitza baino kakofonoagoa.

<https://josunearanguren.blogspot.com/>

FUTBOLA • ARITZ MALDONADO

Pertsona borrokalaria da Peio Tinoco Suarez (Elorrio, 1990). Inork ere ez dio ezer erregalatu. Urte askoan beheragoko mailletako nomada bat izan eta gero —Amorebieta, Lemoa, Galdakao, Berriz, Ermua, Zorrotzako, Elorrio...— 31 urtegez Hirugarren Mailan aritzeko aukera sortu zaio Durangoko Kulturalari eskerrak. Orain arte, partidurik gehienetan parte hartu du, sarritan azken minutuetan zelairatu bada ere. Bere izaera gartsuagaz kutsatuta, aurrelari elorriarrak taldeari aurpegia aldatzea lortu du behin baino gehiagotan.

Itxaroten zenuen Durangoko Kulturalaren interesa?

Ez. Iaz denboraldi erdian bederatzigol sartu nituen Elorriogaz, eta Ohorezko Mailako eskaintza asko jaso nuen denboraldi berriari begira; hamar bat talderenak. San Pedrogaz akordioa ia lotuta nuela, Kulturaletik deitu zidaten. A zer sorpresa! Gero, Hirugarren Mailako Uritarra eta Urduliz taldeetatik ere deitu zidaten, baina ez nuen entzun ere egin eskaintzarik. Erabakia hartuta nuen. Kulturala izen handiko eta tradizio luzeko taldea da.

Zelan doa Hirugarren Mailarako egokitzea?

Aldaketa handia da. Erritmoan asko igartzen da, fisikoki exigentea da, paseetan huts gutxiago egiten da... Baina pozik nago, taldekideten artean oso giro ona dago eta. **Partiduetako azken minutuetan baino ez bada ere, bazabiltza jokatzeko. Pozik zaude orain arteko ekarpenagaz?**

Pozik nago. Baina gehiago jokatzea gustatuko litzaidake, maila eman dezakedala ikusten dut eta. Hau da, fisiko aldetik eta erritmo aldetik ez dut ikusten aurkariak baino gutxiago naizenik.

Partidu bitan titular aritu zara: Uritarraren eta Tolosaren kontra. Zelan ikusi zenuen zeure burua?

"Bihotzez eta pasioz jokatzea jokaldi bakoitza azkena balitz lez; horixe da nire filosofia"

31 urtegez heldu zaio Peio Tinocori, bere ibilbidean lehenengoz, Hirugarren Mailan jokatzeko aukera Durangoko Kulturalen



Aurrelari elorriarra Zornotzan bizi da gaur egun.

Oso gustura sentitu nintzen. Partidu biak etxetik kanpora izan ziren. Etxean titular jokatzeko desiratzen nago.

Taldeak defentsa lanean oinarritzen ditu garaipenak. Sei gol baino ez ditu jaso hamar partidutan. Gustura zaude jokatzeko eskema horretan?

Bai, gustatzen zait. Baina sarritan baloiari eusteko eskatzen didate eta nire dohainik onena atzelarietara bizkarra hartzea eta espazioetara

"Sarritan esan izan didate nire jokatzeko moduagaitik zaleak pizteko dohaina dudala"

"Egunero imajinatzen dut lehenengo gol hori. Tabiran zaleekin ospatzea gustatuko litzaidake"

abiaduran irtetea da, Elorrioren eginen nuen moduan. Aurrez aurreko borroketan, baloiari eusteko jokaldi horietan, ez naiz hain ondo moldatzen. Baina, tira, nik beti ematen dut dena eskatzen didaten horretan.

Zein jokalaria ezagunekin duzu antzekotasunik?

Ezequiel 'Chimi' Avilagaz, David Villagaz... tankera horretakoekin. Bihotzez eta pasioz jokatzea,

jokaldi bakoitza azkena balitz lez, horixe da futboleko nire filosofia. **Jokalari bi horiek izan dira zure idoloak?**

Ez. Txiki-txikitatik izan dudako idolo bakarra Julen Guerrero izan da. Futbola bizitzeko nire modua ondo islatzen duen beste jokalaria bat da.

Zure filosofia agerian geratu zen Leioaren kontra, Tabiran. Taldea txarto zebilen. Bigarren zatian beste jokalaria bat eta zu zelairatu, eta lehenengo lerroko presio hori ezinbestekoa izan zen partidua irabazteko.

Ondo gogoratzen dut, bai. Sarritan esan izan didate nire jokatzeko moduagaitik, dena emateko grina horregaitik, zaleak pizteko dohaina dudala. Eta grina hori taldera ere kutsatu daiteke. Horixe gertatu zen. Lehenengo lerroan presio egin nuen, taldekide guztiek lagundu zidaten, eta, azkenean, gola heldu zen. Euren atean sartu zuten gola.

Kulturala goiko postuetan dago, hirugarren. Maila horri eusteko moduko taldea duzuela uste duzu?

Baietz uste dut. Bloke indartsu bat dugu eta oinarriak sendoak dira. Ez dut epe luzera begiratu gura eta denok argi dugu mailari eustea dela helburu nagusia. Baina zelan lehiatzen garen ikusita, lehenengo seien artean geratzeko aukera ikusten dut. Gatx izango da. maila handiko taldeak daude eta.

Durangoko Kulturalagaz lehenengo gola sartzeagaz amets egiten duzu?

Egunero imajinatzen dut lehenengo gol hori. Irrikaz nago. Tabiran sartzea eta zaleekin ospatzea gustatuko litzaidake.

Kepa Arroita jauregiren oroimenezko torneoko finalak jokatu dituzte gaur Tornosolon

Buruz buruko finalean, Asier Aspuru eta Inhar Ugartek neurtuko dituzte indarrak; paleta gomako finalisten artean, Mikel Iraurgi abadiñarra eta Iñigo Arrieta durangarra daude

TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

Urriaren zehar hainbat jardunaldi jokatu eta gero, Kepa Arroita jauregiren oroimenezko txapelketa une erabakiorrera heldu da. Finalak gaur jokatu dituzte, Abadiñoko Tornosolo trinketean, 18:00etan hasita.

Buruz burukoan, Asier Aspuru abadiñarra eta Inhar Ugarte algortarrak jokatu dute Tornosoloko finala. Aspuru Eneko Maiz menderatu zuen finalerdietan, eta

Inhar Ugartek Ziarrusta. Paleta goma mistoan, faboritoen artean zeuden bikote bi heldu dira finalera. Denis Bidegain-Suzanne Stephane eta Santiago Andreasen-Nagore Martin bikoteen artean dago aurtengo txapela.

Azkenik, emakumeen paleta goman, Aizkoa Iturriñok eta Sylvie Halsouetek Añe Ibañezen eta Maider Ardanazen kontra jokatu dute.

Peter memoriala

Gaur, 19:30ean hasita, beste final batzuk ere jokatu dira Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan; Peter-en oroimenezko txapelketa, hain zuzen ere. Nagusietan, Agirreamalloak eta Pujanak Karregalen eta Bilbaoren aurka neurtuko dituzte indarrak. Gazteen mailan, Murillo-Etxebarria eta Kareaga-Alonso bikoteek jokatu dute elkarren aurka.



Ibañez-Ardanaz eta Isasmendi-Saez bikoteak finalaurrekoan.



Lander Kortazar eta Andoni Gutierrez Mallorkako munduko txapelketan. **BASQUE RIDERS CLUB**

Gutierrez eta Kortazar bikain uretako motoen munduko txapelketan

Andoni Gutierrez abadiñarra txapelkun geratu du eta Lander Kortazar durangarrak hirugarren amaitu du bost egunez Mallorcan lehiatu den txapelketa prestigiotsuan

URETAKO MOTORRAK • J.D.

Urriaren 18tik 24ra, uretako motoen munduko txapelketa lehiatu dute Mallorcan. Andoni Gutierrez abadiñarra txapelkun geratu da eta Lander Kortazar durangarrak hirugarren amaitu du.

Andoni Gutierrez aurretik ere munduko txapelketan aritutakoa da eta podium bat baino gehiago eskuratu du. Kortazarrentzat, ostera, hau estreinako urtea izan da munduko txapelketan. Biak Basque Riders klubean dabilta eta Alacanteko (Valentzia) Sea Level taldeko kirolari banagaz aritu

dira txapelketan. Hau da, binaka aritu dira.

Hain ondo aritzea sorpresa bat izan da eurentzat. "Ez genuen es-

Lander Kortazar: "Itsaso zakarra egon da batzuetan, eta gu ohituta gaude horrelako baldintzetan"

pero. Gure uretako motoak berez fabrikatik datozenak ziren. Kirol honetan frantziarrak dira onenak, eta guk ez dugu aurrekontu

nahikorik euren motoekin parekatzeko", dio Kortazarrek. Beraz, zelan lortu dute hain ondo aritzea? "Itsaso zakarra egon da batzuetan, eta gu ohituta gaude horrelako baldintzetan", argitu dute.

Erresistentzia proba bat izan da. Sei egunetan buelta bat eman diote Mallorca irlari. Espainiako txapelketan 25 minutuko saioak egitera ohituta zegoen Kortazar, baina Mallorcan 80 bat kilometro egin behar izan ditu egunero. "Gogorra izan da. Zerbaitegatik deitzen diote proba honi uretako Dakar-a", esan du.

Durangoko pistak master mailako Espainiako atletismo txapelketa hartuko du domekan

Durango Kirol Taldea laugarren talderik onenaren moduan sailkatu da eta podiuma zapaltzeko aukera du



DKT taldeko Sonia Oceja eta Orkatz Beitia.

ATLETISMOA • J.D.

Durangoko atletismo pistak master mailako Espainiako txapelketa hartuko du domekan, 10:00etan hasita. Txapelketa mistoa da eta Espainiako Lehen Mailan dabilta zortzi talderik onenek parte hartuko dute.

Euren artean, Durango Kirol Taldea (DKT) dago, ekimena antolatzen duen atletismo kluba. Sailkapen orokorreko laugarren tokian sailkatu dira txapelketarako, eta podiuma zapaltzeko aukera dute. "Bigarren eta hirugarren postuetatik gertu gaude eta borrokan egotea espero dugu", adierazi zuen DKTko

Orkatz Beitiak ekimenaren aurkezpenean.

Txapelketan goi mailako atletak ikusteko aukera egongo da. Esaterako, DKT taldeagaz arituko den Aurora Perez madrildarra. Espainiako txapelketan 11 domina irabazi ditu maila absolutuan, eta beste 46 master mailetan dabilenetik.

Beitiak atletismo pistara joateko deia egin zien durangarrei. "Batzuetan jendeak pentsatzen du adin batetik aurrera ezin dela maila handiko kirolean aritu, eta txapelketa ikustera doanak bertatik bertara ikusiko du hori ez dela horrela", esan zuen.

Jokaldia

Datorren urtean gehiago

Mendiko lasterketen Munduko Kopak domeka honetan egingo dio agur aurtengo denboraldiari, Italian. Hamalau lasterketa izan dira guztira: ia denak European.

Kopako sailkapen nagusirako, korrikalari bakoitzaren lau emaitzarik onenak baino ez dira kontuan hartuko eta ia hasieratik korrikalari bi nabarmendu dira: Denisa Dragomir errumaniarra nesketan (4 garaipen), eta Christian Mathys suitzarra mutiletan (3 garaipen). Azken lasterketak korritu barik ere, argi egon da eurek irabaziko zutela txapelketa, eta horrek gatzik eta piperrik barik utzi du lehiaketako azken txanpa sailkapen nagusiari dagokionez. Bestalde, ulertzekoa da antolatzaileek araudian hain lasterketa gutxitako puntuak kontuan hartzea, jakin badakitelako gaur egun bidaiatzea astuna, gogaikarria eta nekagarria egiten zaiela korrikalariari,



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

"Emaitzek ere lagundu dute. Hiru bider zapaldu dut podiuma eta posible da sailkapen nagusian podiumean amaitzea"

"Fisikoki eta mentalki nekatuta amaitu dut eta jakin egin behar da atsedean hartzen, adinean aurrera goaz eta"

hainbeste kontrol eta PCR proba tarteko. Kontu horiek aparte utzita, nik neuk ikaragarri gozatu dut aurtengo Munduko Kopan. Austrian lasterketa zoragarri bi ezagutu ditut; Andorran familiarekin oporretan egon nintzen lasterketa aitzakia hartuta; Italian Hillary Gerardi korrikalari eta lagun amerikarrarekin bat

egin nuen aspaldiko partez, nahiz eta lasterketan ziztu bizian alde egin zidan; Gorbeia Suzien lasterketa eta asteburu osoa egundokoak izan ziren; Frantziako Alpeetara nobiotan lez joan ginen, furgonetan, paliza ederra hartuta, semeak aitita-amamekin utzita; taldekoekin hartu-eman estutu dut; euskal selekzio-lagunekin karrera batzuetan koinziditu dut... Ezin gehiago eskatu. Gainera, emaitzek ere lagundu dute. Hiru bider zapaldu dut podiuma, eta erregularitasun horri esker posible da sailkapen nagusian podiumean amaitzea, Italiako azken proban parte hartu ez arren. Fisikoki eta mentalki nekatuta amaitu dut, eta jakin egin behar da atsedean hartzen, adinean aurrera goaz eta. Gaztetako txispa galdu dudala onartu beharra dut eta datorren denboraldiari begira lasterketa bizkorra utzi, eta iraupen luzeagokoei ekingo diet.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria del Duranguésado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguésado.com
inmoduranguésado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA
BERRIZ: 74 m². 3 logela, komuna dutxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Iggailua. C.E.E= F ALOKAIURIAN, EROSTEKO AUKERAGAZ. **110.000 €**
ZALDIBAR: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsu. Berriztatua. C.E.E=E Alokairuan, erosteko aukeragaz. **99.000 €**
MATIENA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. Terraza. Iggailua. C.E.E=F **149.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea aukeran. C.E.E=G **173.000 €**
J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. C.E.E=G **199.500 €**
ZALDIBAR: Erdialdean. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Berriztatua. Jantzia. Iggailua. C.E.E=F **140.000 €**
TXALETA: Familiabakarrekua. 305 m². 3 solairu. 4 logela eta 3 komun. Lorategia. C.E.E=F **525.000 €**
ABADIÑO: Zeletabe. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. C.E.E **180.000 NEGOZIAGARRIA.**
MATIENA: San Prudentzio. 101 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Eguzkitsu. C.E.E=E **178.000 €**
ZALDIBAR: 95 m². 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea. C.E.E=F **206.000 €**
DURANGO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E=G Apartaleku pribatua. **85.000 €**
SAN AGUSTINALDE: 103 m². BERRIZTATUA. 3 logela, komuna eta egongela. Terraza.
IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukaldea. 15 m²-ko trastelekua. Parking pribatua. C.E.E=F **160.000 €**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E: **F 130.000 €**
IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsu. C.E.E=G **205.000 €**
SANTA ANA: 3 logela, komuna, sukaldea handia eta egongela. Berogailua. Lehio berriak. Ganbara. C.E.E=E **125.000 €**
ANBOTO: 3 logela, komuna, sukaldea handia eta egongela. Balkoia. C.E.E=F **185.000 €**
ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. C.E.E=E **198.000 €**
MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Iggailua. C.E.E=E **155.500 €**
MATIENA: Pisu altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Iggailua. Ganbara. C.E.E=G **120.000 €**
IURRETA: DANTZARI. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. C.E.E= **F. 140.000 €**
MADALENA: 132 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. C.E.E=F **286.000 €**
EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. C.E.E=F. **325.000 €**
KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. C.E.E=G **179.500 €**
BERRIZ: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Argitsu. Berriztatua. C.E.E=E **130.000 €**
MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreintzeko. **125.000 €**
ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila, eraikitze baimenagaz. **250.000 €**
GARAI: Baserría. 237 m². 15.624 m²-ko lursaila. C.E.E=G
IZURTZA: Baserría. 324 m²-ko eta 134 m²-ko bi etxebizitzatan banatua. 3 solairutan banatua. C.E.E=E **640.000 €**

//LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI
MADALENA: 60 m². Alokairuan. **1.200 €**
SAN INAZIO: Garaje itxia. **16.000 €**
TRONPERRI: 60 m². Etxebizitza egiteko aukera. **64.000 €**
ARTEKALEA: Lokala. Alokairuan / Salgai. **550 € / 120.000 €**
F.J. ZUMARRAGA: Alokairuan / salgai. 80 m². Izkina bi kaletan. Dena da erakuslehoa. Oso komertziala.
F.J. ZUMARRAGA: AUKERA. 114 m². **SALMENTA 175.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantziak eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.
DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

MAÑARIA
KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Iggailua. Argitsu.
ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsu. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsu. Merkea.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI
GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.
ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.
ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitze. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: **115.000 €**

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsu. Prezio interesgarria.
DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintzeko.

//BULEGOAK ALOKAIURIAN
ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIURIAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIURIAN
BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguésado.com



DURANGO 60 m²

LAUBIDETA: (2004. urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 70 m²-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebalde). Leku onean kokatua. Berdeguneak eta zerbitzu guneak herrigunetik gertu. Egoera onean. Garaje itxia. BIZITZERA SARTZEKO MODUAN.

255.000 € C.E.E: Bidean



MUNTSARATZ 66 m²
2 logela

ARLOZABAL: 17 urteko antzinatasuna: Egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebalde) Argitsu. Leku onean kokatua. 15 m²-ko trastelekua. 18 m²-ko garajea. Ezin hobea.

217.000 € C.E.E: Bidean



ZALDIBAR 3 logela
72,11 m²

BOLATOKI ZEHARKALEA: Egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsu. (ekialde-mendebalde) Leku onean kokatua. Berdeguneak eta zerbitzu guneak. Iggailua zero kotan. Ezin hobea lehen etxebizitzarako edo inbertsio modura.

140.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 97 m²
3 logela

MONTEVIDEO: Egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe erdiak kanpora ematen du (Iparr-hegoaldea) Leku onean kokatua. Berdeguneak eta zerbitzu guneak. Egoera onean. Garaje-partzela, manioabrak egin behar ez dena. Trasteleku handia (18 m²). Iggailua.

295.000 € C.E.E: Bidean



ZALDIBAR 588 m²
4 logela

MIREN MAORTUA: Familia bakarrekua, 300 m² erabilgarri (558 m²-ko partzela batean), hiru altuerakoa: erdisotoa, etxabea eta lehenengo solairua. Ezin hobeto dago. Kanpo aldera ematen du eta argitsu da (hegoaldea). Halla, saloia (handia), sukaldea, hiru komun, terraza, txokoa eginda... Garaje itxia, 61 m²-koa. 558 m²-ko partzela. Igerileku klimatizatua, portxea, egur-labea. Ezin hobea.

550.000€ C.E.E: E



DURANGO 52 m²

ANTSO ESTEGIZ: 52 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. Herrigunetik oso gertu. Instalazio elektrikoa eta iturgintzakoa berri-berriak. ITE oraintsu pasatutakoa. Iggailua.

155.000 € C.E.E: E

//DURANGO
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Iggailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Iggailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**
BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Iggailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**
GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € E.E.Z=G**
KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Iggailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**
SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**
SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Iggailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze. 600 m²-ko lurzoru. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ATXONDO
ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Iggailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**
BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**
BIDEGAIN KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Iggailua. Ganbara eta garajea. **210.000 € / E.E.Z=E**
MURGOITIO AUZO: Berreraikitze biserria lurzurugaz. **290.000 €**
IURRETA
OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA
TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Iggailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**
OTXANDIO
ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**
GONBILAZ AUZO: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

ALOKAGAI
Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.
GARAJEAK SALGAI
Durangon eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.
BERRIAK
DURANGO
KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **120.000 € / E.E.Z =E**
IZURTZA
ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 29 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 30 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - **ELORRIO**

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 31 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA 1 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 2 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 3 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 4 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Aroa eta Aitor (867. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak, potxola! Oso ondo pasa zure egunean. Muxu potolo bat familia osoaren partez.



Angel Aniak eta bere iloba **Liherrak** urteak egin dituzte urriaren 15ean eta 23an. Mosu handi-handi bat familiaren partez. Askok maite zaituztegu!



Zorionak, **Haizea**! Egun polita izan. Muxu asko zure lehengusina Malenen partez.



Gure etxeko sagutxuek astelehenean 5 urte egin ebazan. Zorionak etxeko guztien partez!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 21° / 13° ☁

ASTELEHENA ↓ 17° / 9° ☁

EGUAZTENA ↓ 12° / 7° ☁

DOMEKA ↓ 22° / 13° ☁

MARTITZENA ↓ 17° / 8° ☁

EGUENA ↓ 13° / 7° ☁

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Garden

Eleberriaren aurkezpena
Manu Ertzilla idazlearekin



Azaroak 10, eguaztana 19:00-etan. Hitz liburu-dendan.

“Nekatuta egon arren, bezeroek bizitzeko gogoia eta motibazioa eman dizkirate beti”

Urkiolako Bizkarra jatetxeak ateak itxiko ditu urte amaieran. Eli Bizkarralegorrek erretiroa hartzea erabaki du, pena handiagaz. Urte hauetan guztietan bezero izandakoei oso eskertuta dago



Eli Bizkarralegorra Atutxa

Bizkarra jatetxea

URKIOLA | 1955

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Bizkarra jatetxea emakumeek gidaturiko jatetxea izan da beti. Eli Bizkarralegorra emakumeen belaunaldi horretako hirugarrena da eta urte amaizten denean erretiroa hartuko du. Urkiolako paisaian uztarturiko eraikina Eliren aitita zena hasi zen eraikitzen, 1924an. Jatetxea ez ezik ostatua ere izan da, eta gerra garaian ospitalea ere bai.

Heldu da Bizkarra jatetxeko sukaldean uzteko ordua. Gatxa izan da erabakia hartzea?

Oso gatxa. Asko kostatu zait, baina etapa berri bat hasi behar dut. Pena handiagaz uzten dut, hau guzti hau

ikaragarri gustatzen zait eta. Pasioz bizi izan dut neure lana. **Zenbat urte eman dituzu Bizkarra jatetxeko sukaldean gobernatzen?**

28 urte izango dira jatetxearen arduratza osoa hartu nuela. Gogorra izan zen, baina beti izan dut senarraren eta familiaren laguntza erabakiak hartu eta aurrera egiteko. Hala ere, zortzi urtegez hasi nintzen jatetxean lanean, zerbitzari. Sukaldean lanean 15 urtegez hasi nintzen, amari laguntzen. Aitita gaixotu egin zen eta eskola utzi behar izan nuen. Markinan nengoen orduan, barneko ikasle. Oinarritzko ikasketak Amaiterminen amaitu nituen. Baina esan beharra daukat 12 urte-

gaz aldiro jarduten nuela jatetxean kordinatzen. Sukaldean, ganadua-gaz, ardiekin... gustura ibili naiz

“Asko kostatu zait erabakia hartzea, baina etapa berri bat hasi behar dut. Pena handiagaz uzten dut, asko gustatzen zait eta”

beti. Gazta egiten eta neguan ardiei erditzen laguntzen ere bai.

Amak erakutsi zizun sukaldean?

Bai, eta ondo gogoan dut ezkontza

bati nik neuk bakarrik aurre egin behar izan nionekoa, 23 urtegeaz. Gurasoak Ferrolen (Galizia) zeuden, Julen nebagaz. Soldadutza egiten zegoen han, eta gurasoak ezin izan ziren sasoz heldu ezkontzara. Inoiz kroketa bat egin bakoa nintzen eta apurka hasi nintzen, esnea litrorik litro botatzen. Denak ondo irten zuen. **Negu gogorak biziko zenituzten...** Urkiolan bizitzea oso polita da, asko maite dut. Eta edur asko egin duenean moldatu izan gara. Gertatu zaigu hilabete edo bi geldirik egotea. Baina beti dago zereginen bat, udan egin ezin izan ditugun lanak tartean. Orain errazagoa da iragarpena ikustea, baita mugikorretan ere.

“Berriro ere zabaltzeko aukerarik sortzen bada, prest nago laguntzeko. Beti zainduko dugu Bizkarra, ateak itxita ere bai”

Bizkarra jatetxea lanbide bat baino gehiago izan da.

Bai. Poza, ilusioa... eman dizkit. Lana baino gehiago, nire bizitza da. **Zelan hartu dute bezeroek albistea?**

Ez dute sinistu gura. Ateak ixteak pena ematen du, halako etxe handia ixteak. Baina berriro ere zabaltzeko aukerarik sortzen bada, prest nago laguntzeko. Beti zainduko dugu Bizkarra, ateak itxita ere bai. Hemen egongo gara, hemen bizi gara eta.

Zeren falta igarriko duzu gehien?

Bezeroekin sorturiko hartu-emanarena eta elkarbizitzarena. Eman didaten maitasunarena. Eta kazola artean ibiltzearen falta, jakina. Oso bezero onak izan ditut, esker onekoak, eta horrek bete egiten du. Nekatuta egon arren, bizitzeko gogoia eta motibazioa eman dizkirate beti. Harro-harro nago eta asko daukat eurei eskertzeko. Maitasun gehiagorik zozinatzen, eta eraberritzen lagundu izana eskertu gura diet.

Kostatuko zaizu ohiturak aldatzea?

Bai, badut beldur apur bat. Igeri egiten ikasi gura dut, eta bizikletan ibiltzen. Maiteminduta naukaten hiru ilobekin uretan eta bizikletan ibili gura dut. Eurekin denbora-pasa.

Lau-hortza

Igor Galarza
Intxausti
Kazetaria



Errepikakor

Gorrotua lagun txarra dela diote. Elkarbizitzari kalte egiten diola, kritika eraikitzaileak saihesten dituela, zuzena ez den bidetik eramaten gaituela... bada, aizu, ni gorrotazalea naiz. Eta gehien gorroto dudana hau da: gauza bera etengabe errepikatzea, mezuan inongo aldaketarik egin barik. Eta amorrua sortzen dit mezu horrek funtzionatzea. Egoerak, testuinguruak aldatzen baitira, baina mezu bera botata, jendeak oniritzia ematen jarraitzen badu, seinale gizarteak ez duela aurrera egin. Asko kexatzen gara eskuindarren mezuak 40 urtean aldatu ez direla; baina ez da etxe arrotzetan gertatzen soilik.

Izan ere, musika estilo zehatz baten inguruan hainbat gazte taldek arrakasta izan dute urteotan, gazte topagune guztietan joz, gaztetxeetako programazio handienetan agertuz zein aretoak betez. Arazoa dut talde horiekin, askok abestietan botatzen dituzten letrak oso errepikakorrak direlako (melodiez ez dut berbarik egingo...). Ezagun bati entzun nion jolas bat zeukatela kuadrillan: aipatzen zuten berba errepikakor jakin bakoitzeko, trago bat hartzen zutela. Mozkor itzela hartuko zuten jolasagaz!

Ez da posible jendetza baten aurrean aldarriratsuz betiko lau berba etengabe abestuz eragitea. Barkatu, baina hori ez da mezu bat zabaltzea. Badaude manera asko askatasuna, elkartasuna eta Euskal Herrian hizpide historikoak izan diren gaiei eusteko. Baina betiko berbak behin eta berriro erabiliz gero, abesti batek dioen legez, berbak itxuraldatzen dira, esanahia ahazten eta zentzua galtzen dute. Haize berria opa dut, musikan zein estilo horren baitako sorkuntzan.

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491